

Goierriarra

339. zenbakia 2008ko apirilak 18

**EUSKARA
JALGI HADI
MUNDURA**



LOUNGE
BAR

KIK
ara

Dolarea, 1
T 943 886 234

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Odei Lopez

Legorretako festak

Lazkaoko ta Beasaineko festekin topatzen gara baina guk berdin gozauko degu ala ez balitz erara hemen giroa euskalduna da eta hori ez da traba gonbidatuta zaudete denok gure herriko festetara arazorikan sortu ezean pozik itzuliko zara.

Apirilaren hogeita hamarra burua daukagu egun bertan guztiok gustura senti gintezkelako euskaldun herri giroa guztiok dantzan ta saltoka pozik jardun gonbidatuta zaudete denok ondo pasatu dezagun baina hori bai pertsona denak errespetatu ditzagun.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Idurre Eskisabel.

5. Ingurugiro txokoa: Etorkizun hobia.

6. Euskara txukuntzen: Denetik (IX)!

8. Aholkua: 2007ko errenta aitorenaren kanpaina.

10. Erreportajea: Lanean! Ordiziako enpresak euskalduntzen

13. Elkarrizketa: Itsasoz bestaldeko euskaldunak

20. Kirola: Aingeru Martinez de Rituerto atleta beteranoa.

26. Non zer.

29. Iragarki laburrak.

30. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Idurre Eskisabel
Larrañaga

“X(Y)-ek ez dute balio ezertako, bakarrik, bakarrik, kaka egiteko!”

Duela urte asko gertatu zen. Gure gelako mutilek lau gauza erabaki zituzten: 1) Futbola zela munduko jokorik dibertigarriena, eta, beraz, errekreo garaian aritzeko jolas bakarra. 2) Atsedean garaiko jolas eremu guztia behar zutela futbolean aritzeko. 3) Neskek ez genekielako futbolean jokatzeko. 4) Eurak zirela erabakitzeko eskumenaren jabe, eta gure egitekoa obeditzea zela.

Lautasun santuaren pare iritsitako erabaki horrek gure gelan ordura arte izandako haserre eta zatiketa handiena piztu zuen. Orduan bukatu ziren elkarrekin, nahas-mahasean, ibilitako errekreoak: goma, futbola, brilea, kromoak, harrapaketa, soka-saltoa, anboato, John Travolta eta Olivia Newton-John imitatzeak, koreografiak, eta *Los Angeles de Charlietara* ibiltzea espazio, une, eta haur talde kaotiko berean gertatzen ziren garaiak.

Hasieran, neskek egin genuen protesta piska bat, eta aldarrikatu genuen errekreo leku nagusia gurea ere bazela eta neskek ere bagenekielako futbolean ibiltzen. Egun batean eserialdia egin genuen, eta futbol zelai bihurtutako atsedean lekuaren erdi-erdian jarri ginen, mutilak dinbi eta danba baloikadaka hasi zitzaizkigun arte. Bizkar aldeak ederki berotuta alde egin genuen. “Mutilek ez dute balio ezertako, bakarrik, bakarrik, kaka egiteko!”, bihurtu zen orduan gure kanta faborittoa. “Neskek ez dute balio ezertako, bakarrik, bakarrik, kaka egiteko!”, erantzuten ziguten are ozenago mutilek.

Ez dakit etsi egin genuen edo onartu

egin genuen plazaren erdigunean egotea eta, noski, futbolean aritzea ez zela hain interesgarria, baina kontua da protesta sasoi labur haren ondoren atsedean lekuko bazterrak geureganatu genituela, eta askoz modu ordenatuagoan hasi ginela goman, soka-saltoa, kromoetan, harrapaketa, eta Miguel Bosereren dantzak egiten jolasten; areago, piskanaka jolas egiteari utzi genion, eta elkarrekin kontu kontari aritzeari ekin, mutilek (gehienek) futbolean jarraitzen zuten bitartean.

Gero etorri ziren komeriak. Nerabezaroan elkarrengana hurbildu nahi eta hurrekoa ezagutzen ez genuenean. Grayren liburu ezagunak aldareetaraigoarazi duen sententzia faltsuak dioen bezala, gizonak Martekoak eta emakumeak Venusekoak sentitzen hasi ginenean. Hau da, elkarrekin zerikusirik ez zuten bi planetatokoak. Larriagoa oraindik, sentsazio hori, berezkoa, naturala, zela barneratu genuenean.

Eta zer esango dizuet, bada? Iraun egiten digu sentipen horrek. Martekoak eta Venusekoak elkarren kontra, gizon edo emakume izatearen gainera pertsona garelako ohartu gabe. Gizonezkoak erabakia eraren eta plazaren jabe izateko lehian zenbat sufrimendu eragiten duten ohartu gabe; emakumezkoak, berriz, gizonezkoek lehia horretan eta bazterren gabezia zenbat sufritzen duten, eta bazterra ez dela beti goxo konturatu gabe. “... bakarrik, bakarrik, kaka egiteko!” kantatzen segitzen du gure barne ahotsak.

Hasieran esan bezala, hori guztia duela urte asko gertatu zen. Aspaldiko kontuak dira.

Beharbada, aspaldiko kontuak direla esplikatzeko diogunean lasaituko da duela egun batzuk gelako mutilek futbolean jokatzen uzten ez ziotelako etxera negarrez joan zen Jone, behiala baloiarekin dinbidanbaka bizkarra berotu zioten Leireren alaba.

*Martekoak eta Venusekoak elkarren kontra,
gizon edo emakume izatearen gainera
pertsona garelako ohartu gabe.*



kutxa

Etorkizun hobe

Droga menpekotasun berri bat atzeman da oraintsu, orain arte ezagutzen zirenetatik nahiko desberdina dena: petrolio, gas natural eta ikatzarekiko zaletasun edo adikzioa. Zaletasun honek ez du zaletua zuzen-zuzenean kaltetzen, baizik eta gure planetaren oreka orokorra asaldatzen du. Baina, noski, gizakioi ere ari zaigu iristen haren ondorioa.



Aspaldiko urte hauetan ekonomia haziarazteko bali izan duen edozer onartu da: merkatuaren guztiahal-duntasunean oinarritutako globalizazioa, nekazaritza industrializatzea, lurzoruen erabilera aldaketa eta okupazio masiboa, hirien hazkundea, lanaren merkantilizazioa eta neurritz gaineko kontsumoa. Baina haziera ekonomiko mugagabeari eusteko ezinbestekoa den petrolio, gas natural eta ikatz merkearen erabilerak gure zibilizazioa arriskuan jarri dute.

Ez ginateke bakarrik ekonomiaren hazierarekin kezkatuta egon behar, karbono dioxidoen emisioen mailari ere arretatsu erreparatu beharko genioke. Neurri asko har ditzakegu karbono gutxiago ekoizteko: garraio kolektiboak gehiago erabili, bertako produktuak kontsumitu, hondakin gutxiago ekoiztu, energia gu-

txien kontsumitzen duten elektratesnak erosi eta bizikaltate on baterako beharrezkoa dena produzitu eta kontsumitu bakarrik. Gainera, karbono emisioen ingurumen-kalteen kostua produktuen prezioan sartzeak eta energia berriztagarri iraunkorrak azkar ezartzeak arazoaren ondorioak erruz arinduko lituzkete.

Gure jokabidea ez aldatzeagatik edo aldatuz gero etor dakigukeenaren ziurgabetasunak eragindako krisialdian murgilduta dago gizartea. Aldaketa sakonak azkar egin beharrean gaudela hautematen dugun arren, ezagutzen ez dugun etorkizun berri horretarako bidea hartzeko kemena falta zaigu. Beldurrak paralizatuta gaudela behar bada. Askotan entzuten diegu aldaketaren kontrakoei hankak lurrean eduki behar direla

esaten, baino beti bi hankak lurrean dauzkana ez da mugitzen. Etorkizun hobearen itxaropenak pausoa ematera eramango gaitu, hanka bat lurrean eta beste, berritua lurreratu arte, airean.

Zein arrazoi daude etorkizun berri baterantz abiatzeko? Aldatu ezean egoera desegonkorrago eta gatazkatsua batera iritxiko gara seguraski. Ondo eta modu jasangarrian bizi nahi badugu, egin beharreko aldaketetako bat zera da, beharrezkoa ez denari "uko" egitea. Eta hau ez dugu sentituko galera bezala, beharrezkoa ez dena (onurarik ez dakarkiguna) kontsumitzea zentzugabekeria baita.

Garatu beharrean gaude benetan hobeto bizitzeko beharrezkoak ditugun beste alde batzuk. Gure gogobetetzaren oinarri nagusiengatik bat komunitatean bizitzea da, besteekin harremanak edukitzea. Askok ez ditugu ezagutu ere egiten eraikin berdinean edo auzoan bizi diren pertsona asko eta asko eta uste dut hau ez dela batere egokia. Hiperindibidualizazioa eraman gaituen zibilizazio teknologista honek, besteak beste, gogobetetze falta eta karbono dioxido laino handi bat sortu ditu. Elkar errespetatuz, elkarrekin hitz eginez, elkar ulertuz eta elkarri lagunduz komunitatean bizitzea erabakikorra da ondo sentitzeko, eremu-erreferentzetan komunitate hurbila (tokikoa, herrikoa) zein zabala (munduko gizartea) hartuta. Badugu zertan hazia.

Joxan Auzmendi

Zibilizazio teknologista honek, besteak beste, gogobetetze falta eta karbono dioxido laino handi bat sortu ditu.

JAKIN BEHARREKOAK

Mundu osoko biztanleriaren %20a (iparraldeko biztanleak) planetako baliabideen %80 kontsumitzen dugu.

Ugatzak itzuli da Andaluziara. Orain dela 20 urte desagertu zen baina Gypaetus Fundazioari esker berriz ikus daiteke hegan Cazorla, Segura eta Villas mendilerrotan. Pozoinak, kume eta arraultzeen lapurreta, poste elektrikoak eta habitaren suntsiketa izan ziren desagertzearen arrazoiak. 2006. urtean askatu zituzten lehenengo hiru ugatzak eta 2007 beste bi. Informazio gehiago www.gypaetus.org.

FSC zigilua duen egurrak Baso tropikalak eta berezko basoak ez direla suntsitzen bermatzen du, egur ustiatetaren kudeaketa egokia ziurtatuz. FSC zigiluak honako 10 oinarri betetzen ditu:

1. Legea errespetatu.
2. Eskubideak eta betebeharrak basoaren nagusia eta bertako komunitateen artean.
3. Indigenen eskubideak bermatu.
4. Langileen eskubideak errespetatu.
5. Basoarentzat onurak sortu.
6. Ingurugiro gaineko eragina kontutan izan.
7. Kudeaketa plana idatziz egin, eguneratu, helburuak eta bideak zehaztu.
8. Ustiatetaren kontrola eta ebaluapenak.
9. Basoaren kontserbazioa.
10. Landaketak egin baso naturalak jasaten duen presioa murrizteko.

Denetik (IX)

Maizpide
euskaltegia

Erdaraz?

Katalana, galiziera, portugesa, italiara, ingelesa, alemana, frantsesa, arabiera, errusiera, gaelikoa...

Zer ote dute goian aipaturiko hizkuntza horiek guztiek gaztelaniarekin komunean? Bada, ezer baino lehen, hizkuntzak direla... baina euskal hiztunarentzat **“erdara”** direla guzti-guztiak!

Erne, beraz, “erdaraz” diogunean, hizkuntza bakar batez, Cervantes-en hizkuntzaz (gaztelaniaz, alegia) bakarrik ari garela dirudi-eta.

Erreparatu, bestalde, ondorengo taulari:

| Zuzena | Okerra |
|------------|-----------|
| Gaztelania | Gaztelera |
| Euskara | Euskera |
| Erdara | Erdera |

Garbi geratu al da, lagunok?

Geratu

Aditz hau bera ere, gaztelaniaren eraginez, behar baino maizago ez ote dugu erabiltzen?

- ✗ *Casting borretan onartuta geratu naiz. (oker).*
- ✓ *Casting borretan onartu egin naute. (zuzen).*
- ✗ *Soineko hori oso ondo geratzen zain, Prantxika! (oker).*
- ✓ *Soineko horrek ederki ematen din, Prantxika! (zuzen).*
- ✓ *Hantxe geratu ziren, ez aurrera ez atzera! (zuzen)*
- ✓ *Pellorekin geratu gara Donostiako bulebarren. (zuzen)*

Historia eta istorioa

Erne, ez dira gauza bera-eta!

ISTORIOA: gertaera bitxia, pasadizoa, ipuina, kontakizuna... adierazteko erabiliko dugu.

- ✓ Herrietako xelebreek istorio xelebreek kontatzen dituzte.
- ✓ Hi, Lontxo, kontu iezaguk berriz goardia zibilekin izandako istorioa.
- ✓ Gure aitonaren istorio horrek hunkituta utzi nau.

HISTORIA: adibideei erreparatuz askoz hobeto ulertuko duzue.

- ✓ “Patxi Paredes”en garaian... Espainiaren historia irakasten zuten eskolan!
- ✓ Historiako irakasleak oso jenio txarra du.
- ✓ Musikaren historia ala euskal literaturaren historia ikasi nahi duzue?

Komunitatea, elkartea, erkidegoa...

Nola esan behar dugu euskara txukunean **Comunidad Foral de Navarra** edo **Comunidad Autónoma Vasca**? Bada, **Nafarroako Foru Erkidegoa** eta **Euskal Autonomia Erkidegoa**.

Harri eta zur geratu naiz Nafarroako Foru Erkidegoko Miguel Sanzek nirekin euskaraz aritu nahi duela jakitean!



Camille hartza, hausnarketa sakonean...

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Euskal Autonomia Elkartean iaz baino jende gehiago dago langabezian.
2. Hi, Txapi, praka horiek ez zaizkik batere ondo geratzen!
3. Miel Marik erderaz baino askoz hobeto hitz egiten din euskeraz.
4. Hi, Txomin, istorio horrek ez dik ez buru eta ez buztan!
5. Euskal Herriaren historiari buruzko liburu ugari aurkituko duzu liburutegian.

OHARRA: lehenengoa, Euskal Autonomia Erkidego-
an (EAEa) behar du; bigarrena, ez dituk batere on-
do (estuegi, lasategi... esateka izango genuke); hiruga-
rtenegoa, euskaraz eta erdaraz; laugarrena eta bosga-
rrena zuzenak dira.

San Inazio, 5
20200 BEASAIN
Telf: 943 16 21 92
Fax: 943 88 36 33

GERTU
Inmobiliaria
www.inmogertu.com

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak

www.jakintza.net



Batxilergoa jakintzaikastolan

Zientifiko Teknikoa eta
Osasun Zientziak
Giza eta Gizarte Zientziak

Euskal heziketa bermatuz
IKT arloan aintzindariak

Altamira auzoa Z/G

Telef. 943 16 05 40

ordizia@ikastola.net



jakintzaikastola



Euskadi
2 0 0 6


MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
GOIERRIKO KANPUSA



Apirilak, 26
Larunbata
Goizeko
11:00etan

**Ate
irekien
jardunaldia**

2. Batxilergo
ikasleentzat,
gurasoentzat,
etabar...

Plaza erreserbatzeko, deitu aurretik 943 88 00 62 telf-ra (Lierni)

2007ko errenta aitortenaren kanpaina

AHOLKUA

Errenta aitopena egiteko garaia iritsi da. Aurtengoan, epea apirilaren 18an irekiko da, eta Ekainaren 25era bitarte luzatuko da.

Nork aurkeztu behar du 2007. urteko aitopena?

Orokorrean, **zergari atxikita dauden errentak jaso dituen pertsonak**: etekinak, errenta egotziak edo ondare irabazi eta galerak lortu dituzten zergadunak.

Aurkezpena **ez da derrigorrezkoa** izango bi baldintza hauek betetzen badira:

1. 20.000 euro gordinetako soldataren azpitik egotea.
2. Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak batera hartuta, urtean 1.600 euro baino gutxiago lortu izana

Nahiz eta aurreko bi baldintza hauek bete, 9.000 eta 20.000 euro bitarteko lan etekinak izan eta ondorengo egoeratako batean dagoenak, errenta aitopena aurkeztu beharko du:

1. Ordaintzaile bat baino gehiago izan dituenak.
2. Kontratu bat baino gehiago sinatu dituenak.
3. Epailen erabakiz pentsio konpensagarriak jaso dituenak.

4. Atxikipenak kanpoko araudiaren arabera kalkulatu zaizkionak.

5. Egunsariak jaso dituenak.
6. Arrantzuntzietako langileek, ordainsariak arrantzaren balioaren partaidetza bat direnean.

7. Ordainsari aldakorrek atxikipen portzentaia kalkulatzeko kontuan hartutakoak baino handiagoak direnean.

Egoera honetan daudenak bi aukera dituzte:

- ✓ Aitorpen orokorra egitea.
- ✓ Hautazko likidazioa egitea; hau da, lan etekinak bakarrik kontutan hartuaz.

Nahiz eta aitopena egitera beharturik ez egon, atxiki edo norberaren kontura sartu diren kantzitateak berreskuratu nahi dituen zergadun orok aurkeztu dezakete aitopena.

Zein dira 2007 ekitaldiko ezaugarri nagusienak?

● **Salbuetsiak daude errenta hauek:**

Gizarte Segurantzak edo honen ordezkotatik 55 urtetik gorako zergadunen alde aitortutako prestazioak. Jasotzeko arrazoiak: kualifikatutako ezintasun iraunkor osoa, erabateko ezinta-

sun iraunkorra edo baliabide ezintasun handia.

Langabezi prestazioa, ordainketa bakarreko modalitatean denean bakarrik.

Zurztasun pentsioak eta prestazio familiarak.

● **Murrizpenak, mutualitate, pentsio plan eta BGA/EPVS-etara egindako ekarpenegatik**

- ✓ Muga orokorrak:
 - Enpresaren kontribuzioa: 8.000 euro.
 - Zergadunaren ekarpenak: 8.000 euro.

✓ Muga bereziak 52 urtetik gorakoekin egindako ekarpenentzako, ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren alde egindako koentzako eta minusbaliatuen alde ekarpenentzako.

● **Errenta aitopen bateratua egiteagatik, 3.800 eurokoa da murrizpen orokorra eta 3.300 eurokoa guraso bakarreko familientzat.**

● **Kenkariak:**

✓ Kenkari orokor berri bat dago 1.250 eurotako autolikidazio bakoitzeko egingo delarik.

✓ Kenkari pertsonal eta familiarretan 2006. urtekoak mantentzen dira bakoitzaren kopuruak igoz.



Idoya Oiarbide
Gertu aholkularitza
Beasain

✓ Ezgaituaren ondare baxuarekin egindako ekarpenegatik kenkari berri bat dago.

✓ Ohizko etxebizitzan inbertitzeagatik, kreditu fiskala 36.000 eurokoa izango da zergadun bakoitzeko, eta inbertsioaren eta interesen %18a kendu ahal izango da, urteko muga 2.160 eurokoa izango delarik.

Kenkari hauek zerrenda luzea osatu arren, askorentzat ez dira nahikoa izaten errentaren emaitza nahi bezelakoa izateko.

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN
www.multiopticasgipuzkoa.com

Kalitate berdineko

2x1

bataurreko progresiboetan

Kristalak barne

2

konbinatu

MULTIOPTICAS

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA


Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRENTERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA



OIANGUREN INSTITUTUA

BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Natur eta Osasun zientziak



- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekerak, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: maiatzaren 5etik 9ra



ALTAMIRA
JATETXEA



Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net



Lanean! Ordiziako enpresak euskalduntzen



Ordiziako udala 2005ean hasi zen lan-munduan euskarara sustatzeko egitasmoa lantzen, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin. Udallerriaren egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, Ordizian euskararen erabilera bultzatzeko estrategia jotzen zen sektorean.

Horretarako, hiru urteko iraupena zuen Plana jarri zen martxan, udalerriko enpresetan progresiboki eragin eta enpresen ezaugarri eta errealiatera egokitua.

Goiekik 2004an kalera-tutako Gida Industrialeko datuen arabera, Ordizian 32 enpresa zeuden eta bertan 800 pertsona inguruk egiten zuten lan. Enpresa horiek

honako ezaugarriak zituzten:

- ✓ Gehienak (21 enpresak) 10 langile baino gutxiago dituzte,
- ✓ 8 enpresek 10-25 langile bitartean dute,
- ✓ 2k 25 eta 100 langile bitartean dute
- ✓ Ez dago 100 langile baino gehiago eta 500 baino gutxiago duen enpresarik udalerrian,
- ✓ Enpresa bakarra dago 500 langiletik gorakoa, Orkli S.Koop. Orkli Kooperatibak Euskara Plana martxan du 2002. urtetik aurrera eta proiektu honetan bide-erakusle izan da gainerako enpresentzat.

Planean parte hartu duten enpresak eta langile-kopurua

2005. urtea, 10 enpresa, 114 langile

| | |
|------------------|------------|
| Anesdur | 18 langile |
| Aralar Grafikak | 5 langile |
| Garin Okindegia | 14 langile |
| Goiagi | 7 langile |
| Goierri Aukera | 11 langile |
| Izar | 7 langile |
| Pagosa | 29 langile |
| Peugeot | 4 langile |
| Unanue | 19 langile |
| * Ugalde edariak | 13 langile |

2006. urtea, 8 enpresa, 83 langile

| | |
|-----------------------------|------------|
| Arbela 2M5 | 3 langile |
| Armendariz ehortexea | 3 langile |
| Goietxe | 5 langile |
| Ikena | 5 langile |
| Muebles Ordizia | 22 langile |
| Ordiziako Osasun zentrua | 19 langile |
| Sebastian Ramos eraikuntzak | 12 langile |
| Garmendia Teilak | 14 langile |

2007. urtea, 7 enpresa, 116 langile

| | |
|----------------|------------|
| Alumalan | 10 langile |
| Gruas Goierri | 29 langile |
| Gureak | 76 langile |
| ACV Multimedia | 2 langile |
| Musika Eskola | 19 langile |
| * Apain | 11 langile |
| Mekalan | 19 langile |

Guztira, 25 enpresa, 361 langile

Oharrak:

* duten enpresek enpresako euskararen egoeraren diagnostikoa eta Euskara Planaren diseinua egin zuten, baina ez duten martxan jarri.

· duen enpresa, 2007an hasi zen enpresako euskararen egoeraren diagnostikoa, baina Euskara Plana 2008an jarriko du martxan.

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promoziok, Eraikuntzak, Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Arriak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA

Enpresetan urtero landutakoak edo egindakoak

- ✓ Enpresei **bisita egin** Euskara Plana martxan jartzeko proposamena eginez, Udaleko eta Elhuyar-ko ordezkariak.
- ✓ Enpresan **euskararen egoeraren diagnostikoa** egin. Horretarako datu hauek jasoko ditugu enpresa bakoitzean atalka:
 1. Datu orokorrak
 2. Erakundearen irudia eta komunikazioa
 3. Kanpo-harremanak
 4. Barne-harremanak
- ✓ **Euskara Planaren diseinua** egin. Honakoak zehazten dira bertan:
 1. Enpresako Euskara Planaren helburuak
 2. Ekintzak
 3. Baliabide material eta ekonomikoak
 4. Arduradunak
 5. Jarraipenerako tresna eta adierazleak.
- ✓ **Euskara Planaren garapena.**
 1. Enpresan eta langile guztiei begira, Euskara Plana martxan jartzeko ekintzak martxan jarri.
 2. Jarduerak koordinatu.
 3. Horien betetze-maila aztertu eta segimendua egin
 4. Beharrezkoak balira, neurri zuzentzaileak proposatu eta garatu.



Egitasmoaren helburua Ordiziako lan-munduan euskararen erabilera bultzatzea

Helburu orokor honen haritik, hona hemen lortu nahi izan direnak:

- ✓ Ordiziako lan-munduan neurrirako eta ezauzgarrietara egokitutako euskara bultzatzeko Plana lantzea eta bere baitan, udalerriko enpresetan euskara-planak garatzea.
- ✓ Ordiziako enpresetan euskarak leku nabarmena hartzen hasteko bideak lantzea eta bertako enpresariak beren lantegien kudeaketan kon-tuan hartzea.
- ✓ Egitasmoari dagozkion Komunikazio-plan eta sustapen-kanpainak diseinatzea.

Enpresak aukeratzeko irizpideak

Planaren ardura nagusia daraman organoa Jarraipen Batzordea da eta beste hainbat lanen artean urtero euskara-planak diseinatu eta garatuko dituzten enpresak aukeratu dituzte, honako irizpideak kontuan izanik:

- ✓ Euskararekin motibatuta dauden enpresak, orain arteko egitasmoen inguruan interesa azaldu dutenak.
- ✓ Enpresaren jardueraren arabera: zerbitzu-enpresak lehenetsiko dira, jendaurreko lana edo zerbitzua ematen dutenak.

Iritziak

Lehen urtean Euskara Planean zeuden enpresak elkarren berri izateko Koordi-

nazio Gunea jarri genuen martxan. Enpresa-kopurua handitzen zihoan neurrian buletina izan da enpresen arteko koordinazio-lana egin duena eta 2007an Andoni Egañaren hitzaldia antolatu genuen Orklirekin batera. Egañak azaldu zituen iritzi nagusiak 2008ko apirilean Ordiziako buzoiz guztietan banatu den buletin-ean ikus ditzakezue laburtuta. Hala ere, hemen dituzue ideia nagusiak laburbilduta:

- ✓ "Lantegiak dira euskara

suspertzeko leku eraginkorrenak"

- ✓ "Lan-munduan euskara sustatzeko ernamuina Lanbide Heziketa da"
- ✓ "Pertinentzia, egokitasun-klabeetan jokatu behar dugu. Gauzak egoki esaten ikasi behar dugu perfektzionismoan erori gabe".
- ✓ "Euskarak aurrera egiteko modu bakarra honakoa da: aurrean duzuna testeatu eta euskaraz egin, egin dezakezun hori".

Lantegiak dira euskara suspertzeko leku eraginkorrenak. ANDONI EGAÑA.

Aurrera begira zer?

2008 urtean proiektuarekin aurrera egitea erabaki da eta hona enpresak zein egoeratan dauden:

- ✓ **Disenu-fasean:** Mekan eta Innovatek. Azken hau 2008ko enpresa berri bakarra.
- ✓ **Garapen-fasean:** Alumahan, Gruas Goierri, Gureak, ACV Multimedia, Ordiziako Musikaeskola, Ordiziako anbulatorioa, Arbela 2M5, Goietxe eta Ikena.
- ✓ **Jarraipen-fasean:** Orkli, Aralar Grafikak, Anesdur, Pagosa, Peugeot Santa Ana, Goiagi, Garin, Izar, Goierri Aukera, Unanue, Ordizia altzariak, Construcciones Sebastian Ramos, Garmendia Teilak.

Ordiziako Udala
2005ean hasi zen
lan-munduan
euskara sustatzeko
egitasmoa lantzen,
Elhuyar
Aholkularitzaren
laguntzarekin.



Konpromisoak

Enpresek honako konpromisoetako batzuk hartzen dituzte, euren egoeraren, bitartekoen eta helburuen arabera:

- ✓ **Kanpo-errotulazioa:** euskaraz ala ele bietan ondo jartzea, euskarari lehentasuna emanez.
- ✓ **Barne-errotulazioa** bi hizkuntzetan egotea, lehentasuna euskarari emanez.
- ✓ **Irudi korporatiboa** (orri-buruak, gutun-azalak, karpetak, txartelak...) euskaraz ala ele bietan jartzea, euskarari lehentasuna emanez.
- ✓ **Ibilgailuen errotulazioa** euskaraz ere jartzea, euskarari lehentasuna emanez.
- ✓ Euskaraz egiten den **publizitatea** areagotzea.
- ✓ **Lehen hitza** euskaraz egitea.
- ✓ Langile euskaldunen artean euskaraz hitz egiteko ohitura handitzea.
- ✓ Idatzizko barne-dokumentazioa bi hizkuntzetan egotea, euskarari lehentasuna emanez.
- ✓ Barne-dokumentazioa euskaraz betetzea.
- ✓ Bezero, administrazio publiko, banketxe zein hornitzaileekin **euskaraz hitz egitea**.
- ✓ Bezeroarekiko **idatzizko dokumentazioa** (fakturak, emate-agiriak/albaranak...) bi hizkuntzetan egotea, euskarari lehentasuna emanez. **Kodeak** sistema informatikoan euskaraz jartzeko aukera aztertzea.
- ✓ Udalarekin eta ahal den azpikontratatuak zerbitzuekin euskaraz hitz egiten jarraitzea.
- ✓ **Langileen euskararen ezagutza** hobetzeko laguntzak eskaintzea aztertzea.
- ✓ Langile berrien hautaketan **euskararen ezagutza baloratzea**.
- ✓ **Aplikazio informatikoak** euskaraz erabiltzeko aukerak aztertzea.
- ✓ Ordenagailua erabiltzen duten langile euskaldunek **sistema eragilea** eta Office-a euskaraz erabiltzea.
- ✓ Laneko **erreminta informatikoetan** euskaraz lan egiteko laguntzak erabiltzea.
- ✓ Etorkizunean erosi beharreko **programa informatikoetan** hizkuntzaren gaia kontuan hartzea.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



MAZDA

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.





Leonat Egiazabal eta Sabrina Otegui:

Itsasoz bestaldeko euskaldunak

Urtarrilean, 23 laguneko talde bat etorri zen Lazkaoko Maizpidera, Argentinatik eta Uruguaytik, euskara irakasle izateko helburuz. 8 ikasle-irakasle gelditzen dira, eta horietariko bi, Leonat Egiazabal uruguaitarra eta Sabrina Otegui argentinarra dira. Gustura daude gure artean, euskaraz inguraturik, euskara sentituz, baina urruntasuna eta herrimina ere sentitzen dituzte. “Uruguay eta Argentina gertuago baleude...”, diote.


ONE MENDIZABAL
ILEAPAINDEGIA

Emakumezkoen nahiz gizonezkoen ileapaindegia
 Depilazio laser medikua
 Zutikako solariuma


 Astelehen goizetan zabalik

943 18 04 92
 Helbarrena, 24
 ATAUN

xetai
 nafarroa etorbidea 1
 20200 beasain gipuzkoa
 www.xetai.net





Lau belaunaldiren ondoren, euskara berreskuratzen ari da Leonat Egiazabal.



Nik linguistika ikasi nuen eta unibertsitatean bertan gai batean jakin nuen euskara existitzen zela.
SABRINA OTEGUI.

Abizenei begiratuta, euskaldun jatorrikoak zarete. Nongo jatorria duzue?

Sabrina Otegui: Aitaren aldeko arbasoak Tolosakoak dira. Amaren aldekoak, Ingalaterrakoak. Baina guk ez dugu bigarren abizenik erabiltzen.

Leonat Egiazabal: Egiazabal, irundar jatorrikoa da. Baxenafarreko Ortzaizeko jatorria ere badut.

Nola hurbildu zarete euskarara?

L. E.: Gu berreskuratzen saiatzen ari gara, nire familia behintzat. Nire aitatxi-amatxien aitatxi-amatxiak euskaldunak ziren. Lau belaunaldi pasatu dira eta ni berreskuratzen ari naiz. Nire amatxik edo amonak hitz batzuk bazekizkien. Horrela hasi nintzen. Galdu zen gauza bat berreskuratzen.

S.O.: Nire kasua erabat ezberdina izan da. Nire birraitona hemengoa zen eta etxean nire aitak ez zekien euskararik, berak beti esaten zuen 'vasco' zela baina ez zekien zer zen Euskal Herria. Nik linguistika ikasi nuen unibertsitatean eta unibertsitatean bertan gai batean jakin nuen euskara existitzen zela eta horregatik hurbildu nintzen Euskal Etxera. Ikasten hasi nintzen.

Nire kasuan, prozesua alde-rantzizkoa izan da. Nik hurbildu dut euskara etxera. Aitak euskararik ez du ikasi, baina bideoak-eta eramaten dizkiot etxera. Hitz batzuk ikasi ditu.

Ni Pergamino herrikoa naiz, Buenos Aires probintziakoa. Badago Euskal Etxe bat baina sekula joan gabe nengoen. Lazkaora etorritako taldeko gehienak txikitatik joaten ziren Euskal Etxetara. Unibertsitateko Buenos Airesa joan nintzen eta hango Euskal Etxean hasi nintzen euskara ikasten.

Zure kasuan Leonat, non eta nola ikasi duzu euskara?

L.E.: Ni Monteviedokoa izan arren, aparte samar zegoen auzo batekoa naiz, eta 17 urtera arte ez nuen Euskal Etxearekin kontakturik izan. 18 urterekin Unibertsitateko ikasketekin hasi nintzen eta horrela aurkitu nuen Euskal Etxera joateko aukera. Baina betidanik izan nuen euskal gauzez jakiteko gogo, nire erroen berri izateko gogo. Etxean entzun nituen gauzengatik, euskaldunak ginela banekien, nahiz eta Uruguayen sortuak izan. Hortik aparte gauza askoz gehiago ere ez nekien. Erro horiek berreskuratzekeo grina nuen eta 18

urterekin hasi nintzen Euskal Etxean euskara ikasten eta Euskal Herria ezagutzen.

Eta lehenengo harreman horretan, zer iruditu zitzaizuen euskara?

S.O.: Zaila iruditu zitzaidan. Baina nik linguistika ikasten nuen eta gramatika pilo bat gustatzen zait. Euskararen gramatika ere izugarri gustatzen zait. Guk euskara ikasteaz aparte, irakatsi ere egiten dugu eta beti saiatzen naiz ikasleei esaten, euskara ez dela zaila, baizik eta ezberdina, gaztelaniarekin konparatuta. Ezberdintasun hori asko gustatzen zait. 7 urte daramazkit ikasten eta egunero ikasten dut zerbait berria.

L.E.: Nire bigarren hizkuntza da euskara, beraz ez da hain zaila ere izango. Nik maite dut eta agian hortik errazagoa egiten zait. Hasieratik beti oso gustura ikasi izan dut. Plazerra izan da ikastea betidanik.

Baina beti gogoz. Bitxia edo zaila, ez dakit zer izango den. Nire prozesua nahiko luzea izan da, 18 urtetik hona.

Jende asko al dabil Argentinan eta Uruguayn euskara ikasten?

S.O.: Euskaltzaleak erakundeetan nago eta Euskaltzale-

ak 'Escuela de Idiomas Vasco' da. Erakunde horren helburua, euskara irakastea da. 70 bat ikasle ditugu eta guretzat hori ondo dago. Aurten badago talde bat, 6. urratseraino heldu dena eta guretzat hori garrantzitsua da. Progresio ona egin zuten. Askok dakite, batez ere gramatikaren aldetik. Mintzatzea asko kostatzen zaie. Nire asmoa edo helburua da euskara irakastea, ingelasa irakasten den bezala.

L.E.: Ni ere irakasten aritzen naiz. Duela gutxi hasi naiz. Euskal Etxean eta unibertsitatean ere ematen ditugu klaseak eta 80 bat lagun izango dira. Irakasle berriena naiz ni. Badaude bi irakasle, EGAdunak eta urte batzuk badaramatzate.

S.O.: Ni ere berria naiz.

L.E.: Gure programa horretarako da.

Zuek hona, irakasleak izateko prestatzera etorri zarete. EGA agiria ateratu...

L.E.: Hori da. Zabaltzeko asmoarekin, kurtso berriak... Orain arte ez da oso erraza izan. Ikasteko aukera bakarra Monteviedon izan da eta gure asmoa hementik aurrera, Uruguay osoan irakastea da. Asmo horren barnean ni nago.

S.O.: Euskal Etxean hasi nintzen euskara ikasten eta

hiru urtera proposatu zidaten irakasle izatea. Hango Barnetegietara joaten hasi nintzen.

L.E.: Uruguay txikia denez, ez daukagu programarik eta Argentinara joaten gara gure ikastaroak hartzeko. 15 bat eguneko ikastaroak izaten dira, udan eta neguan. Nahiko trinkoak.

S.O.: Orain dela lau urte beste proiektu baten barruan, urrutiko ikastaroa, 'remoto' egin genuen.

Boga al da?

L.E.: Ez du izenik, 'remoto'.

S.O.: Ez, Boga edozeinek egin dezake, baina remoto, irakasleok bakarrik. Maizpideko irakasle batek egiten ditu saioak eta azterketak.

L.E.: Hemengo errekurtsioak erabiltzen ditugu irakasteko. Hemengo materiala, bideoak, irudiak... Saiatzen gara hango errealitatera moldatzen.

Lehenengo aldiz etorri al zarete aurtent?

S.O.: Ni iaz bi hilabete egon nintzen Amorobietako barnetegian. Nahiko ezberdina zen. Barnetegia primerakoa da baina ingurua ez da oso euskalduna. Hemen Lazkaon, Barnetegian gaude baina Barnetegitik kanpo, hemengo familiekin gaude. Egun osoan euskaraz. Kanean ere bai.

Eta zein sentipen izan dituzue?

S.O.: Dena den, niretzat pixka bat frustrantea da, ikustea zein ezberdintasun



“Batua abiapuntua da eta euskalkiak jakitea oso aberasgarria da”

Leonat, zuk, nafar edo iparraldeko hizkera egiten duzu.


L.E.: Bai, nik badut halako borroka bat buruan. Ni nire kabuz hasi nintzen eskoaraz ikasten, nire arbasoen hizkuntza ezagutzeko asmoarekin. Beraz, “iparraldetarra” naiz. Hemengo batuarekin moldatzen naiz. Iparraldean gainera primeran nabil, oso euskara polita da. Euskaraz ondo jakiteko, denetarik jakin behar da. Euskalkiak jakitea oso aberasgarria iruditzen zait. Batua abiapuntua da, elkarri konprenitzeko tresna, derrigorrezkoa; baina oso polita iruditzen zait euskararen aberastasun hori.

Ortzaize aldera joaten zara.

L.E.: Bai nire oporrak han pasatu ditut. Askok gustatzen zait. Nire erroak han dira. Beraz, euskara lotua daukat nire arbasoengatik eta gauza askorekin. Euskara ez da niretzat hizkuntza bat bakarrik, oso pertsonala eta sakona da. Inportantea denez, Uruguayan ere zabaldu nahi nuke, konpartitzea.

Ez dakit seme-alabarik daukazun. Baina edukiz gero, seme-alabei euskara erakutsiko al zenieke?

L.E.: Dударik gabe. Nik ez dut seme-alabarik baina nire baloreen artean euskara dago eta bai, erakutsiko nieke. Gero haiek jakingo lukete zer egin.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

Iñasti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZEHU. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



Txindoki-Alkartasuna
Institutua

B a t x i l e r g o g u z t i e n k



ARTE BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:
Arte Ederrak
Ikus-entzunezko komunikazioa
Industri diseinuko injinerutza teknikoa
Publizitatea...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:
Irudia
Ikus-entzunezko ekoizpena
Diseinu eta ekoizpen editoria
Altzari diseinua
Arropa diseinua...

**BATXIL
ELEANI
ikas
batz
ingelo**

HUMANITATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:
Ekonomikak
Administrazio eta enpresa
Humanitate-enpresa
Zuzenbidea
Filologia eta Itzulpenegintza
Geografia, Historia...

Goimailako Lanbide Heziketa:
Administrazioa
Merkataritza eta Marketing
Ostalaritza eta Turismoa
Zerbitzu soziokulturalak...

**ATE IR
APIRILAR
18:30**

**m a t r i k u l a e p e a : m a i
U g a r t e m e n d i , 6 . 2 0 2 0 0 B e a s a i n**



Telf. 943-880753



k a l i t a t e z k

k a i n t z a

BATXILERGO
HEZKUNTZA
Goi-mailako
Arteak eta
Zientziak
lesez

ARTEAK
MARTEN 29an
30etan



Unibertsitateko ibilbidea:
 Medikuntza
 Erizaintza
 Albaitaritza
 Fisioterapeuta
 Kimika
 Matematika
 Injinerutzak
 Arkitektura...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:
 Ingurumen kimika
 Informatika
 Osasungintza
 Nekazar-jarduerak...

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:
 Injinerutzak
 Arkitektura
 Fisika
 Matematika...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:
 Fabrikazio mekanikoa
 Produkzio zerbitzua eta Mantenimendua
 Elektrizitate eta elektronika
 Egurra eta altzariak
 Automozioa...

iatzaren 5etik 9ra
www.txindokiakartasuna.net

dagoen Barnetegian hitz egiten den euskararen eta kaleko euskararen artean. Barnetegiko jendeari inongo arazorik gabe ulertzen diogu baina kalean...

L.O.: Nik ezberdin ikusten dut. Barnetegian oso gaizki hitz egiten dugu, denak euskaldunberriak gara, akats asko egiten ditugu eta batzutan kutsatu egiten da.

Zer egiten zaizue zailena?

S.O.: Alde batetik, abiadura. Beste alde batetik, hiztegiaren aldetik.

L.E.: Badago salto bat batuatik kalerat.

S.O.: Guk hiru hilabete darabagu hemen eta barruan primeran, baina gero, atera eta...

L.E.: Nik alderantziz, barnetegian kutsadura gehiegi ikusten dut.

S.O.: Baina dena ulertzen duzu kanpoan?

L.E.: Dena ez, baina errepikatuta bai.

Familietan zaudetela esan duzue. Familiekin ondo ulertzen zarete?

S.O.: Primeran.

L.E.: Ez beti, baina polita da, betiko euskara da-eta.

S.O.: Horrek pentsarazten dit, inoiz ez dudala hemen-go pertsona batek bezala hitz egingo.

L.E.: Ezkorra zara.

Bestela, euskara eta Euskal Herria gustatu zaizkizue?

L.E.: Izugarri. Euskal Herria euskaratik ulertzen dugu. Euskaldun giroan mugitzen saiatzen gara. Euskal Herria eta euskara oso lotuak dauzkagu. Geografikoki ere izugarri polita da.

Zer gustatu zaizue gehien?

S.O.: Nik beti gauza bera esaten dut: niri gehiena euskara gustatzen zait, euskaraz mintzatzea... Badakit euskaragatik nagoela hemen. Gehiena gustatzen zaidana hori da, euskaraz bizitzeko aukera.

Argentinan arraroa egiten zaie euskaraz ikastea eta gero irakastea.

Ametsa beteta, baina herriminez

Gustura al zaudete bizitzen ari zareten esperientziarekin?

S.O.: Bai. Azterketak egin ditugu eta azterketen presioarekin zaila da. Baina oso ondo. Hemengo familiarekin adibidez, oso ondo. Bikote batekin nago, nire adinekoak dira, eta etxean bezala nago, primeran. 34 urte ditut. Neskak, ama esaten diot nik, 30 urte ditu eta aitak, 37. Lagunak gara. Alde horretatik primeran. Barnetegian oso ondo baina azterketaren eguna heltzen denean...

L.E.: Ametsa da nire kasuan. 18 urterekin hasi nintzen eta orain hemen egotea. 33 urte ditut. Hemen, Euskal Herrian bakarrik egotea ametsa da. Ez dut hitzik. Nire kasuan borroka luzea izan da. Hau lortzeko, pazientzia handia eta iraunkortasun handia behar da. Beraz...

S.O.: Edo zerbait ondo egin dugu.

L.E.: Bai, edo oso burugogorak gara.

Noiz arte egongo zarete hemen?

S.O.: EGako atariko proba gaingitu dut. Idatzizkoa ere egin dut eta emaitzaren zain nago. Gaingitzen badut eta gero ahozkoa gaingitzen badut, maiatzean bukatuko dut. Baina gaingitzen ez badut, ez dakit, beharbada geldituko naiz HABEko hirugarren maila egiteko edo... Herriminez nago.

L.O.: Niretzat izango balitz hemen biziko nintzatekeen, baina bueltatu behar dut, konpromisoa bete behar dut eta. Saiatuko naiz ikastaroa bukatuta hilabete bat ematen Euskal Herrian, gozatzeko. Barnetegiko erritmoa nahiko gogorra da eta pasiatzeko ez dago aukera handirik.

L.E.: Pixka bat eroak bezala...

S.O.: Dena ondo dago eta niretzat garrantzitsuena euskara da. Ni Argentinan normalean saiatzen naiz internet bidez Euskadi Irratia entzuten eta ikasleekin euskaraz hitz egiten. Gehiena gustatzen zaidana, euskaraz inguratuta egotea da.

L.E.: Hori eta euskara bizirik ikustea. Nahiz eta hainbeste arazo eta egoera larria eduki, bizirik ikustea, nire kasuan, oso pozgarria da.

Iaz Baxenafarroan izan nintzen Amikuzeko ikastolan. Oso ikastola xumea da, haur gutxi... lana egiten du te han euskararen alde. Zein lana eta ahalegina den hori euskara mantentzeko! Beti korrontearen kontra, baina euskara bizirik ikustea oso pozgarria da. Euskal Herriko xoko ezberdinetan euskara zaharra entzutea edo bizitza hori hor dagoela ikustea, pozgarria da. Eta saiatuko gara, Amerikan, Uruguayn horren alde zer-

bait egiteko gai izaten.

Eta gutxiena zer gustatu zaizue?

S.O.: Gustatuko litzaidake Argentina pixka bat hurbilago egotea.

L.E.: Uruguay ere bai. Urruntasuna sentitzen da.

Hemen arraroa egiten zaigu, Argentinan eta Uruguayn euskara ikasten ari zaretela ikustea. Eta han?

L.E.: Nire kasuan ez.

S.O.: Bai.

L.E.: Uruguay oso estatu berria da, eta oso irekia. Eta han arraroa, Uruguayn eta bertako kulturaren alde zerbait egitea da. Baina italiara, grekera, latina... kultura horien alde zerbait egitea ez da batere arraroa. Oso ondo ikusita dago. Montevideon behintzat bai. Euskal kultura zabaltzeko laguntza lortuko genuke errazki. Beraz, euskara irakaslea eta euskalduna izatea Uruguayn, oso ondo ikusten da, balore positiboekin lotuta dago.

S.O.: Bai, hori bai baina euskara irakasten duzula esaten duzunean? Nire lagun gehienek linguistika ikasi dute eta hizkuntzekin lotura daukate. Esan nienean, euskara ikasten hasiko nintzela, nahiko arraroa iruditu zitzaie. Irakasten hasiko nintzela ere bai, eta hona etorriko nintzela... Hona etorri ginenean telebistan-eta atera ginen eta harritu zeuden. 7 urte pasata gero ohituta daude baina oso-oso arraroa birgiztatu zidaten.

Eta hemen arraroa egiten al zaizue Euskal Herrian bizi eta euskararik ez jakitea?

L.E.: Arraroa ez, baina konprenitzeko zaila. Hori da, hemen gustatzen ez zaidan zerbait: euskararekiko hemengoek duten mesprezua. Hemen jaiok izanagatik, batzuek duten arbuia. Hori izugarria da. Hori ez dut ulertzen. Hori ez zait batere gustatzen. Ulergarria da, baina ez dut onartzen. Guk

Gustatuko litzaidaketa Argentina hurbilago egotea; hurruntasuna sentitzen da. **SABRINA OTEGUI.**

Uruguayn ikasten dugu, korrontearen kontra beti, eta hemen dena dute eskuan ikasteko eta ez dute ikasten. **Zaila dela esaten dute askok.**

L.E.: Matematika ere zaila da eta ikasten da eskolan. Beharrezkoa da eta arazorik gabe ikasten da. Euskararekin beti dago aitzakiaren bat ez ikasteko. Ez dute ikusten, euskara berez altxorra dela. Eta ez da euskaldunon altxorra bakarrik, munduko altxorra da. Hizkuntzarik zaharrena da. Baina gauza horiek ez dakizkizkizte. Ignorantzia handia ikusten dut. Ez zait gustatzen. Euskal kulturaren inguruan ignorantzia handia. Ez daki-



te zer den euskara, ze historia duen, ze aberastasuna duen...

S.O.: Nik nire ikasleekin hitz egiten dut askotan eta euskara gauza zaharrekin lotzen da.

L.E.: Hemen ez.

S.O.: Diasporan bai.

L.E.: Ez da zaharra eta berria, hizkuntza bat da. Ikasteko maitatu egin behar dugu. Azterketa baten atzetik ezin dugu ibili, eta ez euskara maitatzeko gogoarekin. Kolpe handia da guretzat. Urrundik etorri gara, euskara maitatzen baitugu, bakoitzak bere erara, eta hemen ikusten dugu paper bat besterik ez dela. Hori ere ez zait gustatzen.

Oriamendi 21
Beasain
Secundino Esnaola 19
Eustasio Amilibia 11
Donostia

zein kolore nahi duzu?

www.basmodec.com

**pinturak eta osagarriak
goi-mailako dekorazioa
paper pintatuak
lur estaldurak**



*Aingeru Martinez de Rituerto
atleta beteranoa:*

**“Orain mantso-tuta
nago, baina
sentsazioak
gaztetakoak dira”**

Berrogei urte bete eta berriz heldu dio lazkaotarrak atletismo lehiari. Beteranoen mailan pentatloian aritzen da: altuera eta luzera jauziak, pisu jaurtiketa, mila metro korrika eta 60 metro hesiak probak egiten ditu. Martxoan

Frantzian jokaturako beteranoen munduko txapelketan, bederatzigarren egin du. Gaztetan, altuera jauzian aritzen zen Ordi-ziako Txindoki taldean. Bost seme-alaben aita, familia, lana, aisia eta kirola uztartzen ditu Aingeru Martinez de Rituertok.

**SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA**

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Nolatan itzuli zara berriz ere atletismora?

Orain dela hiru urte hots egin zidan Ordiziako Atletismo Taldeko Jon Etxeberriak, altuera jauzia egiteko norbait behar zutela esateko. 16 urte neramatzkien altuera egiteko zapatilarik jantzi gabe. Joateko esan zidan, proba egiteko. Taldekako txapelketetan kontua ez da izaten marka bat egitea, postuaren arabera hainbat puntu ematen dituzte. Joan ginen eta nahiko txukun, 1,70 saltatu nuen.

Deia jaso aurretik, beterranoen munduko txapelketa jokatu zen Donostian. Ikustera joan ginen familia osoa eta ikusi nuen, nire adinekoek, 1,80 inguruan zabiltzala. Baten bat, 1,86 – 1,88. Hortaraino ez zela iruditu zitzaidan, baina ahaztu egin nuen. Orain dela bi urte, berriz ere deitu zidaten, ea prest nengoen joateko. Ezer egin gabe, oraindik hobeto, 1,80 saltatu nuen. Hilabetera, Gipuzkoako txapelketa jokatu zen eta 1,82 salto egin nuen, gainera irabazi egin nuen. Orduan, zerbait egiten hasi behar nuela erabaki nuen.

Aurten, berrogei urte beteta, maila berria, gazteena maila horretan, Munduko txapelketa gertu samar ere bai... sei hilabete hartu dituzer bait prestatzeko eta horrelaxe izan da. Espainiako txapelketa irabazi egin nuen.

Gaztetan altuera jauzian aritzen zinen, orain pentatloia aukeratu duzu.

Altuera jauzian itsutu beharrean, pentatloia egin nuen Espainiako txapelketan. Berez, pista estalian heptatloia izaten da eta kanpoan, de-



Angel, Aingeru, Andu

Lazkao Angel, Ordizian Aingeru eta Tolosan Andu. Berez Angel da baina Ordiziara atletismo taldera joan zenean, beste bi Angelek egin zuen topo. Beraz, "euskalduna ni izanik, Aingeru deitzen zidaten". Andu berriz, Iruñea aldean sortutako izena da. Aldizkari batean Angel Lertxundi bezala izenpetzen zituen artikuluak eta Lertxundi idazlearen harira, Andu deitzen hasi zitzaizkien. Tolosan bizi da lazkaotarra eta Tolosan, Andu da.

katloia, hamar proba. Beterranoetan, hirurogei metro eta pertiga kentzen dituzte eta bost probatan gelditzen dira. Pentatloian altuera eta luzera jauziak, pisu jaurtiketa, 1.000 metro eta 60 metro hesietan egiten dira. Hori prestatu nuen eta Espainiako txapelketara joan eta irabazi egin nuen. Nahiko on-

do gainera. Espainiako errekorretik nahiko gertu. Altuera jauziko proban ere parte hartu nuen. Altueran ez dago inor handirik. Berez errusiarra da baina duela bost urtetik Eibarren bizi den bat badabil. Goi mailakoa da, Olinpiadetan ibilitakoa: Oleg Makev. Bitxia da, Euskadin parte hartzen ba-

du, bertakotzat hartzen da baina Espainian ez dute aintzat hartzen. Nik baino bi urte gehiago ditu eta oso ona da. 1,85-1,88an dabil. Mundu mailan ere txukun samar aritzen da. Altuera eta pentatloia irabazi nituen eta hesietan bigarren gelditu nintzen. Frantziako Munduko txapelketara joan eta 9. egin nuen pentatloian.

Altuera ere egitea pentsatzen nuen baina asteartean izan zen pentatloia eta larunbatean altuera. Aste gutzia han gelditzea ere... eta ez nuen parte.

Zein denbora edo jauzi egin zenituen?

Altueran 1,81 egin nuen; hesietan 9,48 segundu. Txukun dago, Espainiako rankingean lehenengo nago. Luzera jauzian uste baino okerxeago egin nuen, 5,80 inguruan ari nintzen eta 5,48 saltatu nuen. Pisuan 9,13. Pisua eroriko zitzaidala uste nuen, 7 kilokoa zen. Altuera nahiko txukun, 1,81. Eta mila metro 3 minutu 04 segunduan.

Gehientsuenok pisua egiten dugu okerrean. Proba denak ezin dira prestatu gainera. Nik batez ere, altuera eta hesiak prestatu ditut. Entrenamendu fisikoa lantzen da, hanketako indar 'explosibo' edo potentzia eta abiadura, eta besteetako ere balio du. Batez ere hesiak landu ditut, altuera garai batetik nahiko ikasia baitaukat.

Kirolerako itzulera nola koka izan da?

Nik kirola egiten beti jarraitu dut, mendian edo eskalatzan... beste mota bateko gauzak egiten, txispa gehiegi gabeko kirolak. Korrika luzean egitea ez zait inoiz

Altuera eta luzera jauziak, pisu jaurtiketa, 1.000 metro eta 60 metro hesietan egiten dira pentatloian.

| | |
|---|---|
|  ARANDIA Garajea | N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47 |
| LADA Ssang Yong | AUTOEN KONPONKETA |

| | |
|---|---|
| PSIKOLOGI KLINIKOA  Jose Ramon Pato Prieto Psikologian lizentziatua Elkargokide zenbakia: E-2644 RPS: 42001 | Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak |
| AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN | |



gehiegi gustatu baina prestakuntza bezala ondo etortzen da, mendira joandakoa hobeto ibiltzeko. Mendian ibili izan naiz: Pirinioetan, Marokon, Andeetan, Himalaya aldean ere ibilitakoa naiz.

Gogoratzen naiz, aste-buru batean deitu eta asteazken horretan Ordiziara joan ginela salto batzuk egitera. Agujetekin egon ginen. Larunbatean izan zen proba eta oraindik minez nengoen, hankatan, bizkarrean... Nahiz eta kirola egin, ez da berdina, bat-batekotasun hori ez da berdina.

Orain, mantsotuta nago, salto gutxiago egiten dut... baina sentsazioak gazteta-koak dira. Orain entrenatzen aritu naiz, eta lau serie egin ditut hamar hesirekin eta ikusten dut iristen naizela... Prestatuz gero, sorpresak hartzen ditugu.

Altuera jauzian zein marka egin zenituen gazte garaian?

2 metro eta 5 zentimetro. Gazte mailan, 18-20 urteko kategorian, garaian hartan promesa maila zen, bi urtetan, Espainiako bigarren egin nuen.

Altuera jauzian marka zeuk omen daukazu Txindoki taldean.

Bai, oraindik bai. Nire aurretik, Bartolo egon zen, eta niri pixka bat berak erakutsi zidan. Beste gazte bat ere etorri zen, oraindik ere badabilena, Beasaingo Eneko Barandiaran, 26 bat urte izango ditu, baina ez du

guk ikusten nituen, eta nahiz eta asko entrenatu, igual 2,10 saltatuko nuen... nire mugak ikusten nituen eta beste gauza batzuk gustatzen zitzaizkidan eta batez ere horregatik utzi nuen.

Orain mendian ibiltzen

Bitxia da: beteneraok urteak betetzeko desiatzen egoten dira, kategoriaz pasatu eta gazteena izateko, irabazteko aukera gehiago izateko.

gainditu, konbinazioak egiten zituen honek. Eta orain Lazkaoko gazte bat badabil, Oier Anaia, eta Espainiako txapelketan aurten laugarren egin du, eta 1,77 saltatua du dagoeneko. Nik uste dut honek baduela hobetzen joateko aukera.

Zergatik utzi zenuen?

Egia esan, nik atletismoa serio, oso denbora gutxian egin nuen, hiru bat urte, 17-18 urtetik 21era. Gero ikusita, Euskadiko selekzioarekin konzentrazio batera edo Espainiako txapelketa abuztuan... eta lagunak mendira eta ez dakit nora... Nire mu-

gara, baina inguruko elurteak, eskaladako eskolak... eginez. Pirinioetara-eta joateko askoz ere aukera gutxiago daukagu, eta Berazuri ere bertan dago. Lanetik 3etan atera eta zuzenean entrenatzera joaten naiz... Asteburuetan lehiaketaren bat baldin badago, normalki familia osoa joaten gara.

Batzuk desiatzen egoten dira 40 urte bete beteneraon sartu eta sariak irabazten hasteko. Gaztetoetan, kategoriako zaharrena izatea hobea izaten da; beteneraon alderantziz gertatuko da,

gazteena izatea hobea.

Hori bitxia da bai. Lehengoan betenera zahar bati entzun nion: asko urteak betetzeko desiatzen egoten direla, kategoriaz pasatu eta gazteena izateko, aukera gehiago izateko. 3.800 atleta bildu gara Frantziako Pista estaliko Munduko txapelketan. 35 urtetik 95 urte bitartera, zenbat maila dauden. Antolamendua erotzeko modukoa izan zen. Ikusgarria da daukaten adinarekin egiten dituzten markak. Gurean ere lehenengo hiruak oso-oso onak ziren. Bat gainera ezaguna izandakoa. Irabazlea, orain dela 15 bat urte, Europako txapelduna izan zen dekatloian. Irabazleari telebista etorri eta el-karrizketa egin zioten.

Bere garaian marka oso onak egin izan ditu baina adinak berdintzen gaitu pixka bat. Gaztetan askoz ere alde handiagoarekin ginen eta orain adinarekin, berak galtzeko gehiago du, nik baino. 2,28ko saltoa egin zuen altuera jauzian, nik 1,82. Berak nik baino gehiago galdu du beraz.

Irabazteak edo ondo egiteak ilusio handiagoa egiten al du orain?

Ez dakit. Nik iaz ikusi nuen zen, proba bakarria egite-



ak presio gehiago jartzen dizula eta zurrumbiloan sartzen zarela. Gaztetan presio handiagoa daukazu. Entrenatzen duzunean eta emaitzak onak ez direnean, eta atletismoan proba teknikoetan gertatzen da, asko entrenatu eta probara joan eta ez isladatzea egindako lana. Nik ez nuena nahi hori zen: asko entrenatu, denbora asko eskaini eta joan eta ez hobetzea. Orduan pentsatu nuen beste proba batzuk ere egitea eta aukera gehiago izatea.

Ilusioa egiten du irabazteak, beti ere jakinda non zauden. Niri gustatzen zaidana edo ilusio gehiena egiten didana da, egindako lanaren fruitua ikustea.

Espero dituzun markak betetzen badituzu, jarraitzeko motibazioa da. Entrenatu eta nahi dituzun markak ateratzen ez badira, motibazioa mantentzea kostatzen da. Gainera ikusita, ondo ibiltzeko aukera daukazu, motibazio gehigarria da. Eta ondo ibiltzeko aukera daukazula ikustea ere gehigarria da. Nire ilusioa litzateke, altuera jautsian 1,85 salto egitea.

Lehiaketara itzulita, aldatearik nabarmena zein izan da?

Garaiak aldatu dira: gaur egun internetek aukera ona ematen digu. Ni gogoratzen naiz, lehen Espainiako txapelketetara joaten nintzela, itsu-itsuan, jakin gabe zein zihuan, zein marka zauden... orain Munduko txapelketetara joan aurretik adibidez, sartu eta izen-emate guztiak ikusten dituzu eta bakoitzak aldeztu aurretik egindako markak jartzen zituen. Nik behintzat, banez jendea nola ibiliko zen gutxi gorabehera. Nik neukan marka, 10-15en artean zegoen, eta bederatzigarrena egin nuen. Marka batzuk hobetu egin nituen, eta beste batzuk okerxeago. Pisu antzera.

Udako txapelketetan parte hartzeko asmorik ba al daukazu?

Bi urtez behin egiten dira Munduko txapelketak. Urte batean Mundukoa, neguan, eta udan Europakoa; eta hurrengo urtean alderantziz: neguan Europakoa eta udan Mundukoa.

Aurten, Eslovenian izan-

udan ere bai, eta hori ere egin nahi dut.

Munduko txapelketan, kamisetaren kontuan, bitxikeriaren bat baduzu.

Donostian Munduko txapelketa jokatu zenetik, araua aldatu zuten. Jende pilo batek, Euskadiko kamisetarekin parte hartu zuen. Izena eman nuenean, Espainiko Federazioaren bitartez egin nuen, kamisetaren kontua aipatu zidan eman. Araudiak dionez, Espainiko kamisetarekin parte hartu beharra zegoela. Badaezpada ere emateko esan nion, eta txapelketan bertan emango zidala esan zidan. Ez nuen ikusi eta ez zidan. Nik Txindokiko kamisetarekin parte hartu nuen. Frantziarrek komentatu zidaten kamisetarena, baina nik ezer ez nekien esan nien. Tarte horretan, bizkaitar batek, bigarren edo hirugarren egin zuen 800 metrotan, 75 urtetik gorakoetan. Deskalifikatu egin zuten Euskal Herriko kamisetarekin parte hartzeagatik. Baina egia esan Espainiako Federazioko tipoa nahiko jatorra omen da eta tartean sartu eta domina eman zioten. Gogor jartzen ari dira. Bakarkako txapelketa da ez da herrialdeetako, horrek harritzen nau.

Momentu honetan, nire ilusioa, altuera jautsian metro

1 eta 85 zentimetroko salto egitea da; gaztetan, 2 metro eta 5 zentimetrokoa egin nuen.

go da Europako txapelketa, udan. Uztaila bukaeran izango da eta oportetarako plana egin daukagu dagoeneko, eta ez naiz joango. Gainera nik uste neguak aukera gehiago ematen duela, eguna motzagoa, familiarekin plan gutxiago daude, entrenatzeko denbora gehixeago... Orain eutsi egingo diot, Euskadiko eta Espainiako txapelketak daudelako. Espainiakoa ekaina bukaeran da. Gustatzen zait neguan irteera parte bat egitea Pirinioetara eta

Martinez de Rituerto:

“Eskaladak betetzen nau gehien”

Kirol bat:


Mendiarekin lotutakoak, batez ere eskalada da gehien betetzen nauena. Atletismoa lehia da gehiago, eskaladan berriz, edozein gauzarekin ondo pasa dezakezu, Txindokiko ertza eginez edo pareta zail bat egitea desberdina badira ere. Mendiko eskia ere bai, asko gustatzen zait.

Triatloiekin ez zara animatzen...

Ez, ez, nik hauspoa ez du sekula eduki oso-osoa... Mendiko Federazioko idazkari aritu naiz lau urtetan eta orduko lehenakariaren erronka zen, mendiko eskiaren lehiaketa bultzatzea. Euskal Herrian pilo bat egiten da eta oso jende gutxi zebilelako lehiatzen. Ildo horretan, lehenengo Euskadiko txapelketa, Euskadiko kopa... Jarri genituen martxan eta probatu nuen duela hiru-lau bat urte. Bizkor samar eginda, gogorra egin zitzaidan. Ni behintzat mendira, beste era batean joaten naiz. Urte hartan Espainiako txapelketara ere joan nintzen... igo-jaitsi-igo-jaitsi... 20 kilometro... hiru ordutan egin nuen. Eta pentsatzen aritu nintzen, ibilbide hura lasai-lasai, 6 bat ordutan egiteko zoragarria zela, baina itsu-itsuan egiteko... Niretzat mendiko eskia, gozatzeko da.

Kirolari bat:

Nik asko miresten ditut Rikardo Otegi eta Josune Bereziartu. Rikardo ni baino urtebete gazteagoa da eta 22-23 urte elitean daramazki. Eta elitean egoteko gaitasun hori edukitzea... Nik uste dut 16-17 urterekin 8. graduako bideren bat egingo zuela eta urteak pasa eta oraindik maila hori baino



gorago egotea eta ilusio horrekin jarraitzea...

Eta Josunena zer esanik ez. Josunek emakumeetan egin duena, ikaragarria da. Amorrazio pixka bat ere

ematen dit, askotan ez delako baloratzen. Kirol lorpen bezala Euskal Herri mailan ez dago Josunek lortu duena egin duen beste emakumerik lortu. Askotan Edurne Pasabanekin parekatzen da. Pasabanek egiten duenak badi bere meritua, batez ere, hartzen ari den arrisku guzti horregatik. Baina kirol lorpena ez nioke deituko, jende askoren esku baitago zortzi milako bat lortzea, zorte pixka bat eduki eta gauzak ondo eginda. 2000. urtean Pakistanen izan ginen Nanga Parbat eta zorte pixka bat eduki izan bagenu tontorra egingo genuen. Edurnek egia esan, azkeneko urteetan joan den guztietan tontorra egin du eta horrek ere asko balio du, baina Josunena ikaragarria da.

Zaletasun bat:

Asko. Mendi bueltak egitea, irakurtzea, zinema...

Mendi bat:

Ematen dituen aukerengatik, Txindoki. Eskalatzen, eskiatzen, oinez... era guztietan goza dezakezu.

Estadio bat:

Berazubi. Euskal Herriko eta Estatuko lehenengo izan zen, historia handikoa da.

Amets bat:

Ahal dela, ingurukoek, maite duzun jendeak eta nik neuk, osasuna izatea eta gogoko dituzun gauzak egiten jarraitzeko aukera izatea.

Janari bat:

Oso jatun ona naiz eta denetarik gustatzen zait. Ondo prestatutako jakia bada, edozer. Ardo on batekin bustia bada, hobe.

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

IÑAKI ARIN aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN

NAZARETZENTROA

JARDUNALDI IREKIAK

DATAK **Apirilak 18-19**
 18:00 Ostirala
 ORDUTEGIA 11:00 Larunbata

Batxilergoa

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natura eta Osasun Zientziak

Masterrak

- Aplikazio Informatikoen Garapenean Masterra

Lanbide Zikloak

| Goi Mailako Zikloak | Ziklo Erertainak |
|--------------------------------------|---------------------------------|
| Administrazioa eta Finantzak | Administrazio-Kudeaketa |
| Informatika Sistemen Administrazioa | Merkataritza |
| Informatika Aplikazioen Garapena | Sistema Informatikoen Ustiapena |
| Merkataritza Kudeaketa eta Marketina | |
| Nazioarteko Merkataritza | |
| Idazkaritza | |

**Ikasgaiak euskaraz, gaztelera
eta ingelera ematen dira**

kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza

Aldakonea, 36 · Bº Egia
 20012 DONOSTIA
 Tel. 943 326666
 Fax. 943 326384
 nazaret@nazaretzentroa.com
 www.nazaretzentroa.com

San Benito ikastola

KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA

*Izen-emate epea:
Maiatzaren 5etik 11ra*

- Ikasleak ezagutzen ditugu.
- Tutoretza eta orientazio pertsonalizatuak.
- Irakasle talde finko eta konprometituak.
- Emaitza onak.

Garraioa Jangela

BATXILERGOAK

- Zientzia eta teknologiak
- Giza eta gizarte zientziak

www.sanbenitoikastola.net
 Tel. 943880800 Email: lazkao@ikastola.net LAZKAO

Euskadi
2 0 0 3



2007ko irabazleak eta Goiztiri AEK-ko kideak.


Goierri

Txiste eta pasadizioen lehiaketa

Goierriko eta Zumarragako AEK-ko euskalategiekin Ordiziako Udaleko EBPNren babesean antolatuta, XVII. txiste eta pasadizioen lehiaketako oinarriak kalean dira dagoeneko. 16 urtetik gorakoentzako lehiaketa da. Txistetak euskaraz idatziak izan beharko dute, batuan edo euskalkian.

Apirilaren 30a da lanak aurkezteko azkeneko eguna. Helbideak honakoak dira: Goiztiri AEK euskalategia, 116 posta kutxa, Ordizia; edo eta beasain@ae.org edo ordizia@ae.org. Txistekin batera, norberaren izena, helbidea eta telefonoa jarri behar dira.

Hiru txiste sarituko dira. Irabazle bakoitzarentzako bina afari, Mutiloako Lierni Garakoa jatetxean, Zaldibia-ko Uriko jatetxean eta Legorretako Insausti tabernan. Goiztiri AEK-ko ikasleek egingo dute txiste onenen aukeraketa. Sarituaren izena, Goierriko Hitza egunkarian azalduko da.



Lazkao

XIV. Gerriko ikerlan-beka

Goierriko Euskal Eskolak, Maizpide euskalategiak eta Lazkaoko Udalak Gerriko ikerlan-beka antolatu dute XIV. aldiz. Goierri dagokion edozein zientzi alorretako izan daiteke gaia. Euskarazkoa. Banaka nahiz taldeka har daiteke parte. Proiektua aurkezteko eskaerak, maiatzaren 9an baino lehen egin behar dira. 15 bat orrialdeko proiektu zehatza aurkeztu behar da: ikerketa esparrua, izenburua eta hipotesia, materialak eta lanmetodologia, helburuak, ikerlanerako plana eta ikerlanaren interesa zehaztuko dira bertan.

Dokumentazioa ondorengo helbidera bidali behar da: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea. XIV. Gerriko Ikerlan Beka. Elosegi, 16-1.esk. 20210 Lazkao.

Beka 7.000 eurokoa izango da, Gipuzkoa-Donostia Kutxak emana. Epaimahaiaren erabakia, ekainaren 27an jakinaraziko da.

Urtebeteko epea izango du/dute ikertzaileak/ek ikerlana erabat bukatuta entregatzeko, 2009ko ekainaren amaiera hain zuzen ere. Ikerlana, Euskadiko Kutxaren laguntzaz argitaratuko da. Ikerlan bukatuaren testuak, gutxienez ere 100 orrialde izan beharko ditu.

Diru-laguntza hiru zatitan ordainduko da: onartutako kopuruaren %40, eskatzaileak oniritzia ematen duenean, %20 sei hilabetera, egin duen ikerlanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena aurkeztutakoan eta %40, ikerlan-beka onartu eta urtebetera, ikerlana erabat bukatuta aurkeztu ondoren. Epearen barruan ikerlana bukatuta entregatzen ez badu/badute, ikertzaile sari-
tuak/ek dirua itzuli egin beharko dute.



Garbiketa
Zerbitzu
Integrala

Enpresen mantentzea

Tel./Faxa: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

Itsasondo

Kultur astea

Apirilak 18, ostirala:

18:00etan: Itsasondoko aterpean, haur eta gaztetxoentzako antzerkia: 'Magia teilatuan'.

21:30ean: Goierriko kultur zirkuituaren barruan, 'Euskera sencilloaren manifestoa' antzezlan.

Apirilak 20, igandea:

11:00etan: Itsasondoko I. Herri krosa. Itsasondoko plazan hasi eta herriko zehar egingo du bere ibilbidea. Izen-ematea, herriko dendan eta Kaxintanen. Egunean bertan, ordutebete lehenago.

Patata tortila pintxo lehiaketa: Korrika saioaren ondoren eta indarrak berreskuratu asmoz, patata tortila pintxo lehiaketa izango da plazan.

Urkiko jaiak

Maiatzak 3, larunbata: Gurutze deunaren eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Hamaiketako Laja eta Mikel trikitilariak alaiturik.

14:30ean: Bazkaria.

17:30ean: XXV. Mus txapelketa herrikoia.

19:30ean: Erromeria Laja eta Mikel trikitilariekin.

21:00etan: Lagunarteko afaria elkartearen.

23:00etan: Laja eta Mikel trikitilariak.

Maiatzak 4, igandea:

10:00etan: Meza nagusia.

11:00etan: Hamaiketako Olatte anaiak trikitilariekin.

14:30ean: Bazkaria.

18:30ean: Emakumezkoen toka txapelketa.

19:00etan: XXVI. Gizonetzkoen toka txapelketa.

20:00etan: Olatte anaiak trikitilariak.

Oharrak: Egunero antxuma bana zozketatuko da. Afa-rietarako eta bazkarietarako maiatzak 2 baino lehen eman behar da izena: 943 88 93 67.

Ordizia

Jakintza ikastolako ikasle ohien afarian

Aurten betetzen dira 40 urte Jakintza ikastola sortu zela eta urteurrenaren harira apirilaren 26an Jakintza ikastolako ikasle ohien afaria izango da, iluntzeko 9etan, Villa Eugenioan. Txartelak apirilaren 23a baino lehen eros daitezke Olano eta Pottoka tabernetan eta ikastolako bulegoan, 20 euroren truke. Informazio gehiagorako telefonoa: 943160540.

Logotipo eta lelo lehiaketa

Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak, irudiz eta leloz jantzi nahi du 2008-2012 urteen artean garatuko duen euskara biziberritzeko plana. Hori dela eta, logotipo eta lelo lehiaketa deitu du. Irudia eta leloa, biak asmatu beharko dira lehiaketan. 16 urteko gorako edozeinek har dezake parte. Parte hartzaile bakoitzak lan bakarria aurkeztu ahal izango du.

Logotipoak (diseinuak) nahiz leloak honako helburua izango dute: euskarari balio handiagoa ematea eta euskara lagunarteko egitea. Leloa euskara batuan zein Goierriko euskalkian idatzita bidaltzea onartuko da, eta laburra eta bizia izango da. Lanak epaitzeko garaian, irudiaren eta testuaren arteko egokitasunaz gain, irudimena eta ideien originaltasuna hartuko dira kontuan, baita argitasuna eta txukuntasuna ere.

Lanak euskarri elektronikoan aurkeztu beharko dira, baita paperean inprimatuta ere: jatorrizko diseinu bat koloretan eta tintan egindako beste bat aurkeztu beharko dira. 600 euroko sari bakarria banatuko da.

Lan guztiak helbide honetara bidaliko dira, maiatzaren 5a baino lehenago: Ordiziako Udala, Euskara Zerbitzua. Ordiziako EBPN 2008-2012. Logotipo eta lelo lehiaketa. Kale Nagusia 26. 20240 Ordizia.



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:

Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word...

INGELERA:

Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza

Joan Iturralde, 5, Beasain
943 160 120
www.ikaskide.net

Gabiria

Kultur astea

Apirilaren 19an hasi eta 26ra bitartean, kultur astea izango dute Gabirian. Jarraian duzue egitaraua:

Apirilak 19, larunbata:

17:00etan: Eskolako haurren antzezlan.

Apirilak 20, igandea:

17:30ean: Musika eskolako ikasleen emanaldia.

Apirilak 22, asteartea:

19:30ean: Saharari buruzko hitzaldia.

Apirilak 23, asteazkena:

Sukaldaritzako ikastaroa, Ormaiztegi Kuko jatetxeko Iker Markinez sukaldariaren eskutik.

Apirilak 24, osteguna:

16:30ean: '1.728 animalia kontu' ipuin kontaketa, herriko liburutegian.

Apirilak 25, ostirala:

22:00etan: 'Ogirik gabe etorri zen semea' antzezlan, saloian.

Apirilak 26, larunbata:

20:30ean: Bertsolari gazteen Osinalde sariketa.

Olaberria

I. 'Olaberria' argazki lehiaketa

2009. urteko Olaberriko egutegia egitea da I. 'Olaberria' argazki lehiaketaren helburua. Edozein argazkilarik parte har dezake. Gaia, Olaberria da. Formatuari dagokionean, paper fotografikoa, gehienezko neurria, 20 x 30 cm. Argazkilarik bakoitzak lau argazki aurkeztu beharko ditu, gai ezberdinei buruzkoak. Sariak honakoak izango dira: irabazlearentzat, 350 euro eta garaikurra; bigarrenarentzat 250 euro eta garaikurra; hirugarrenarentzat 150 euro eta garaikurra; eta herritar onenarentzat 100 euro eta garaikurra. Urriaren 1a baino lehen bidali behar dira lanak Olaberriko udaletxera, Kultura sailera. Sari-banaketa, azaroaren 1ean egingo da.

Ordizia

Ikusi Makusi egitaraua

Apirilaren 8an hasi zen Ordizian Ikusi Makusi egitaraua, Udaleko Euskara eta Kultura Sailen eta Hitzaro Euskara Elkartearen eskutik. Haurrentzat eta horien gurasoentzat Euskara Biziberritzeko Planaren barruan udaberriro antolatzen diren kultur emanaldiek osatzen dute Ikusi Makusi egitaraua.

Hiru ekintzek osatuko dute aurtengo egitaraua. Apirilaren 8an Eriz magoa izan zen; gelditzen direnak, ondorengoak dira: apirilaren 29an, Zirika Zirkus taldearen 'Bazen behin zirkoa' etea maiatzaren 10ean, Txatxilipurdi elkartearen 'Euskal karaokea'.

Haurrentzako masajea

Guraso eta seme-alaba jaioberrien komunikazioa lantzeko tailerra antolatu du Ordiziako Udaleko Euskara zerbitzuak. Maiatzeko eta ekaineko zazpi ostegunetan izango dira saioak, arratsaldeko 4etatik 5,30etara, Barrera Kultur etxean; hau da, maiatzaren 8an, 15an, 22an, 29an eta ekainaren 5ean, 12an eta 19an. Irakaslea Legazpiko Jon Beitalarrangoitia psikoterapeuta izango da.

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek, Udaleko Arreta bulegoan egin behar dute izen-ematea, apirilaren 30a baino lehenago. Harremanetarako telefonoa: 943805622.

Kultur zirkuitua

Lazkaon, Itsasondon, Ordizian eta Beasainen antolatu den Kultur Zirkuituaren barruan, azkeneko ekitaldia izango da apirilaren 22an Ordizian. Joxe Ramon Agirre 'Marron' ataundarraren 'Zeelanda Berria (naturaren hitzak)' ikusentzunezkoa izango da, Barrenan, 19:00etan.

Segura

Hazi bedeinkatzea

Urteroko ohiturari jarraituz, apirilaren 20an, ur eta hazi bedeinkatzea egingo da Segurako Santa Engrazi ermitan, eguerdiko 12etan.



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako
ogi naturala

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxue:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

☎ 943 80 10 66 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak **ZEGAMA**

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasain. Etxebizitza salgai, Nafarroa etorbidearen ondoran. 75m², sukaldea, 3 logela, egongela, bainugela, 50m²-ko terraza, berogailua, altzariz hornitua, ganbara eta igogailua. Aukera ona, prezio interesgarria. 679933268.

Beasain. Igartzta etxaldean 112 m²ko etxea salgai. 4 logela. 2 bainugela eta 14 m²ko terraza. Bi kotxerentzako garaia. 635746967.

Beasain. 4 logelako etxebizitza salgai, oztopo arkitektonikorik gabe. Erdigunean. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. 240.000 euroz azpitik etxebizitza salgai. INMO

F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. 80 m²ko etxebizitza salgai. Igogailuarekin. 216.400. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Goierri. Baserria salgai, 7 Hako lursailekin. Aukera asko eskaintzen ditu. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Ordizia. Egokitutako 50 m²ko etxebizitza salgai, erdigunean. Aukera ona. 180.000 euro. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Zegama. 3 logelako etxebizitza salgai. Berogailua. Argitsua. Erdigunean. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

LOKALAK

errentan eman

Lazkaon lokala alokatzen da. 943225674 - 635710103.

HARREMANAK

40 urteko mutil jatorrak eta langileak, neska bat ezagutu nahi luke. 638897296.

BESTELAKOAK

salgai

Jane markako haurrentzako gurgildun aulki bikoitza salgai (eserleku bat bestearen atzean). 9 hilabetez erabilia. Prezio interesgarria. 610047505.

Logela txuria salgai. Osoa. Egoera onean. Berria. Kapri-txosoa. 665717162.

kontsultak

Tarot kontsultak. 943766214.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,65 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

LANA

eskaerak

Egunerorako zebitzari euskalduna behar da. Esperientziaduna. Kontratuarekin. 615745924.

Olaberrin, emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. 667412658.

Administratzaile laguntzailea behar da Legazpi, Zumarraga eta Urretxu inguruan. 685755799.

Bi langile behar dira Beasaingo Arrano tabernarako; sukalderako eta barrarako. 943887447.

Ordizian neska bat behar da etxeko garbiketarako egiteko eta noiz behinka haurrak zaintzeko. Orduka. 943887679. 19:00etatik aurrera deitu.

Zerbitzaria behar da taberna baterako. 943801799.

Beasain erdiguneko jatetxe baterako zerbitzaria behar da. 609531484.

eskaintzak

Ikaslea asteburuetan tabernan lan egiteko prest. 625701599.

Neska orduka lan egiteko prest. Umeak eta adinduek zaintzen eta garbitzen. 606722876.

ANIMALIAK

opari

Martxoaren 9an jaiotako 4 txakurkume polit-polit oparitzen dira. Ama setterra eta aita golden retrievera. 605744303.

IBILGAILUAK

salgai

Citroen C4 autoa salgai. Urte eta erdi. 11000 km. Egoera ezin hobean. 677329934.

GARAJEAK

salgai

Beasainen, garaje itxia salgai. 637211107.


ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatua



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Astigarretako dotrina umeak 1914. urtean

Orain dela 94 urte ateratako argazkian Astigarretako dotrina umeak ageri dira. Denen izenak jakitea ezinezkoa bada ere, erdian ageri den apeza Daniel Agirre da, itsasondoarra jaiotzez.

Gure helburua,
zure ongizatea.

XVHAI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Kale Nagusia 6, Idiazabal 943 18 74 94
xuhaifisioterapia@gmail.com



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RFS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxes: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ARRIETA

JATETXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA



ARGI
OPTIKA

Ε Ψ Μ Ε

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarrizko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argoitika.com

PRADA *Salvatore Ferragamo* CXTÉ ROMEO GIGLI



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626

Perspektiba, usaimena,
platerak, estetika, ura,
aulkiak, txipiroiak, lerroak,
hozkailua, lorea, koloreak,
mahatsak, edalontziak,
bolumena, mantala, labea,
dastamena, geometria,
botila, tomatea, texturak,
labanak, irudia, azpizuna,
simetria, perrexila, gatza,
kazola, gozamena.

Kontzeptu eta elementuak
uztartuz sortutako guneak

DISEINUA SUKALDEAN

